



Galtzagorriko Irakurketa Mintegia

10. telegrama

Letren dantza


Telegrama hau idazteko asmotan geundela, nor garen eta zertan ari garen hausnartzen jardun dugu. Eta emaitza izan da gure idazleen narrazioak goraiatzeko gogoia, ozen adieraztea euskal testugintza aberatsa izan dela eta aberats izaten jarraitzen duela.

Bizi ditugun garai “likido” hauetan zaila zaigu gureari eustea. Nonahiko idazleen liburuak ditugu eskura, hamaika herrialdeetakoak, beste hainbeste argialetxeen eskutik. Eta tartean euskaldunak. Literatura unibertsala den neurrian kontuz ibili behar gara bereizkeriarik ez egiteko, baina aldi berean sana dirudi euskaldunon lanak nabarmentzea, guk geuk egiten ez badugu, beste inork egingo ez duelako.

Neurri berean ari zaigu irudigintzaren literatura oroz gainetik ezartzen. Eta maite dugu. Maite dugu euskal ilustratzaile asko agertu direlako, estimatuak hemen eta atzerrian. Baina hemen eta orain euskal idazleak azpimarratu nahi ditugu, idazle gazte zein beteranoak hautatuta, istorio bikainak eskaintzen dizkiguten sortzaileak, letren dantzan euskarari mundua berrasmatzeko aukera ematen dioten artista horiek.

Hona 2021eko argitalpenen entresaka oso labur bat, argialetxe eta adin desberdinak aintzat hartuta.

(6+)




BARRUKO HOTSAK

Haur baten barne hizketa, egun baten bueltan, hitz eta grafia jostalariz eskainia.

Leire Bilbao
Maite Mutuberría
Xabier Zabala

Pamiela, 2021

(8+)



UR ETA LUR

Zapoak eta igelak gizon tristeari bizipoza berreskuratzen lagundu ziotenekoa.

Yolanda Larreategi
Eider Eibar

Erein, 2021



ERROTA ZAHARREKO KLUBA

Dena ahaztu eta jolasa eta abentura zeregin bakarria diren udaldi amestu horien kronika.

Paddy Rekalde
Alex Orbe

Elkar, 2021

(10+)




KATIXA DORRE MAGIKOAN

Iniziazio bidaia dorre magikoan barrena.

Antton Kazabon
Liebana Goñi Yárnoz

Txalaparta, 2021



ESNA IRAUTEKO IPUINAK

Ipuin labur eta oso laburren bilduma, irudimenean barrena.

Xabier Olaso
Miren Asiain Lora

Denonartean, 2021

(12+)




ZUHARA: ITSASOAREN DEIA

Fantasiako egoerak gaurko gazteen kezketan murgilduta.

Amaia Telleria Mujika
Laida Ruiz

Alberdania, 2021

(14+)



ITSASOAREN ATEA

Izan dena eta izango dena elkar batzen diren unean.

Miren Agur Meabe
Maite Gurrutxaga

Elkar, 2021

(∞)



AITONAREN LO-KANTA

Jaiotza amaren eta haurren unibertsoan barrena.

Juan Kruz Igerabide
Maite Gurrutxaga

Creotz, 2021